



TOLOSAKO
UDALA

UDALBATZA BERRIA ERATZEKO OSOKO BILKURA BEREZIA

2019.06.15

Tolosako Udaletxean, 2019ko ekainaren 15ean, eguerdiko hamabietan, kargua utzi behar duen alkate-lehendakariak deituta, maiatzaren hogeita seian hauteskundeetan hautatuak izan ziren zinegotziak lehen deialdian elkartu dira Osoko Bilkura Berezia eginez Udalbatza berria eratzeko eta alkatea aukeratzeko.

En la Casa Consistorial de Tolosa a las doce del día 15 de junio de 2019, se reúnen convocados y convocadas por la alcaldesa-presidenta saliente, en sesión extraordinaria y en primera convocatoria, los concejales y concejalas electas que se expresan, proclamados y proclamadas en las elecciones municipales celebradas el pasado 26 de mayo, al objeto de proceder a la constitución de la nueva Corporación, así como a la elección del alcalde o alcaldesa.

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Kristina Pelaez Errazquin
Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria
Garbiñe Marzol Ormazabal
Xabier Martinez Quinquilla
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

- | | |
|--|---|
| 1. Adineko Mahaia osatzea. | 1. Constitución de la Mesa de Edad |
| 2. Hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea. | 2. Comprobación de credenciales e identidad de los electos y electas. |
| 3. Zinegotzien kargua hartzea. | 3. Toma de posesión de los concejales y concejalas. |
| 4. Udalbatzaren eratze-deklarazioa | 4. Declaración de constitución de la |



TOLOSAKO
UDALA

Corporación.

- | | |
|--|--|
| 5. Ondare inbentarioaren eta kontaketa aktaren kontu ematea. | 5. Dación de cuenta del inventario y del acta de arqueo. |
| 6. Alkatea hautatzea. | 6. Elección del alcalde o alcaldesa. |
| 7. Alkatearen kargua hartzea. | 7. Toma de posesión del alcalde o alcaldesa |

Batzarrari hasiera eman zaio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. ADINEKO MAHAIA OSATZEA

Lehenik, idazkariak Hauteskundeetan zinegotzi hautatuak izan direnei deitu die eserlekuetan jartzeko.

Jarraian, etorritakoei adierazi die bilkuraren helburuak Udalbatza berria eratzea eta alkatea hautatzea direla, guztia Hauteskunde-Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195. artikuluan xedaturikoa betez. Hau da:

- *Udal korporazioak, hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean eratuko dira.*
- *Bilkura honen xedeak dira Korporazioa eratzea eta alkate-lehendakaria aukeratzea.*
- *Xede horietarako, bertaratu diren hautetsi zaharrenak eta gazteenak osatuko dute Adineko Mahaia.*

Bilkurari hasiera emanda, Adineko Mahaia osatu da: Jose M^a Villanueva Telleria jauna, 58 urterekin, zaharrena, mahaiburu, eta Olatz Artola Apeztegia andrea, 28 urterekin, gazteena. Idazkari jardun du bilkurakoak berak, Begoña Garmendia Vazquezek (idazkariak) eta adierazi du bilkura Jose M^a Villanueva Telleria jaunak zuzenduko duela.

2. HAUTETSIEN KREDENTZIALAK ETA NORTASUNA EGIAZTATZEA

Lehenik, idazkariak adierazi du indarreko legeriari jarraiki zinegotzi hautetsi guztiek aitortu dituztela bateraezintasun-arrazoia izan daitezkeenak eta ondasun eta jarduerak.

Ondoren, idazkariak Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak egindako kredentzialak irakurri ditu, banan-banan, eta zinegotzi bakoitza identifikatu ditu, **kredentziala eta Nortasun Agiria alderatuz, eta zinegotzien kredentzialak** entregatu dizkio Adineko Mahaiko lehendakariari.



TOLOSAKO
UDALA

Adineko Mahaiko lehendakariak egiaztatu ditu bertaratu diren korporatiboen kredentzialak, eta idazkariak egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena bilkuran parte hartzen ari diren hautetsi guztiek ondasunei eta jardueri buruzko aitorenak egin dituztela.

3. ZINEGOTZIEN KARGUA HARTZEA

*Udal idazkariak zinpeko aitorenari ekiten dio eta, banan-banan, hautetsi bakoitzari **707/1979 Errege Dekretuak, apirilaren 5ekoak, xedaturiko formularen arabera** ondoko galdera egin die:

“Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientziagatik eta ohoreagatik, Erregeari leial izanda, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguaren obligazioak, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuaren oinarritzko araua delako?”

Hauek izan dira erantzunak:

... Jose M^a Villanueva Telleria, (PSE-EE): *“Azken 40 urteetan, Tolosan izandako alkate eta zinegotziek egindako lana eskertuz, bereziki Joanmari Jauregi jauna gogoratuz, zin egiten dut.*

En recuerdo de los alcaldes y concejales de Tolosa de los últimos 40 años, especialmente recordando a Joanmari Jauregi, prometo. “

... Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU): *“Nire kontzientziagatik eta ohoreagatik, itotzen gaituzten loturak askatzen, menpekotasunak hausten eta norbanako askeak izateko arituko naiz lanean feminismotik. Behetik gora eta ez goitik behera. Hitz ematen dut, beraz, tolosar askeekin Tolosa bizi, justu eta berdinzaleago baten alde zintzo beteko ditudala zinegotzi karguaren obligazioak.”*

... Olaz Peon Ormazabal (EAJ-PNV): *“Bai, legeak aginduta.”*

... Begoña Tolosa Mendia(EAJ-PNV): *“Bai, legeak aginduta.”*

... Nerea Letamendia Belloso(EAJ-PNV): *“Bai, legeak aginduta.”*

... Jose Francisco Amantegi Zubiria(EAJ-PNV): *“Bai, legeak aginduta.”*

... Joseba Koldo Ormazabal Lopez(EAJ-PNV): *“Bai, legeak aginduta.”*

... Egoitz Sorozabal Iturain(EAJ-PNV): *“Bai, legeak aginduta.”*



TOLOSAKO
UDALA

- ... Xabier Balerdi Tolosa(EAJ-PNV): “*Bai, legeak aginduta.*”
- ... Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe(EAJ-PNV): “*Bai, legeak aginduta.*”
- ... Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBildu): “*Jendarte berdinzalegoan, jasangarriagoan eta justuagoan sinisten dudalako, Herritarren aurrean zin egiten dut, tolosar guztiok bizitza duina aurrera eramateko baldintzak jartzeko lanean zintzo jardungo naizela legearen aginduak betez.*”
- ... Kristina Pelaez Errazquin (EHBILDU): “*Bai, legearen indarrez egiten dut zin, eta herritar guztien duintasuna, berdintasuna eta burujabetza emango digun Euskal Errepublikaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dut*”
- ... Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU): “*Legeak hala aginduta hitz ematen dut zintzo beteko ditudala zinegotzi karguaren obligazioak Tolosako herritarrekiko arduraz eta begirunez, beti ere gardentasuna eta independentzia ardatz eta ilusioa makulu, guztiontzako izango den bizitoki duin eta Euskal Errepublikaren alde lan egiteko konpromisoarekin.*”
- ... Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU): “*Bai, legeak hala behartuta hitzematen dut eta lanean arituko naiz Euskal Errepublika feminista, euskaltzale eta berdinzaleago bat sortzeko bidean.*”
- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): “*Emandako babesa baliatuz, herritarrekin eta herriarentzat gogoz eta zintzoki lan egin, eta tolosar guztien ongizatea eta eskubide berdintasuna bermatuko dituen Euskal Errepublika libre a lortzearen, legearen indarrez hitz ematen dut.*”
- ... Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU): “*Lehenik eskerrak eman nahi dizkiot hemen elkartu diren herritar guztioi, batetik etorri zaretenoi eta bestetik ezin dutenak egon ere, gugan jarri duten konfiantzagatik. Guztioi esker Tolosa euskalduna, anitza, parte-hartzailea, bakoitzak amesten duen Tolosa lortzeko lan egingo dudala, legeak hala aginduta, zin egiten dut.*”
- ... Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU): “*Bai, legeak hala behartuta hitzematen dut eta lanean arituko naiz Euskal Errepublika feminista, euskaltzale eta berdinzaleago bat sortzeko bidean.*”

Ondoren, Legeak agintzen dituen baldintza guztiak beterik, zinegotzi hautatuei karguaren jabetza eman die Adineko Mahaiko lehendakariak.

4. UDALBATZAREN ERAKETA- AITORPENA

Zinegotziek bere karguaren jabetza hartu ondoren, Adineko Mahaiaren lehendakariak eratzat jo du Tolosako Udaleko Udaltza, eta honoko hauek osatzen dute:



TOLOSAKO
UDALA

Olaz Peon Ormazabal	EAJ-PNV
Begoña Tolosa Mendia	EAJ-PNV
Nerea Letamendia Belloso	EAJ-PNV
Jose Francisco Amantegi Zubiria	EAJ-PNV
Joseba Koldo Ormazabal Lopez	EAJ-PNV
Egoitz Sorozabal Iturain	EAJ-PNV
Xabier Balerdi Tolosa	EAJ-PNV
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe	EAJ-PNV
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui	EBILDU
Kristina Pelaez Errazquin	EBILDU
Aitana Amondarain Esquisabel	EBILDU
Aitzol Garcia Azurmendi	EBILDU
Olatz Artola Apezteguia	EBILDU
Ander Figuerido Zubiria	EBILDU
Garbiñe Marzol Ormazabal	EBILDU
Xabier Martinez Quinquilla	EBILDU
Jose M ^a Villanueva Telleria	PSE-EE

5. ONDARE INBENTARIOAREN ETA KONTAKETA AKTAREN KONTU EMATEA.

Adineko Mahaiaren lehendakariak udal kontuhartzaileari eman dio hitza, Tolosako Udaleko Ondare Inbentarioaren eta Kontaketa Aktaren berri eman diezaion Udalbatza berriari.

Ondoren, Adineko Mahaiaren lehendakariak hasiera eman dio alkate-lehendakaria hautatzeko jardunbideari, udal idazkariari hitza emanez.

6.- ALKATE-LEHENDAKARIAREN HAUTAKETA.

Udal idazkariak Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 196. artikuluan xedaturikoa azaldu du:

- *Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.*
- *Horietako bateren batek gehiengo osoaren botoak erdiesten baditu, zuzenean izendatua izango da.*
- *c) Eta horietako bakar batek ere ez baditu lortzen gehiengo osoaren botoak, orduan, herrian botorik gehien erdietsi duen zerrendaburua izango da Alkate.*

Ondoren, Adineko Mahaiko lehendakariak bozketaren hasiera iragarri du:



TOLOSAKO
UDALA

Hurrengo zinegotzi zerrendaburuak izango dira alkategai, PSE-EEren zerrendaburuak uko ekin baitio alkategai izateari.

- Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNVren zerrendaburua.
- Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, EHBILDUren zerrendaburua.

Idazkariak banan-banan zinegotziei deitu eta ahoz bozkatu ondoren, botoen zenbaketa egin da eta emaitza honako hau izan da:

- Olatz Peon Ormazabalek, 9 boto
- Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, 8 boto.

Beraz, EAJ-PNV-ko ordezkari Olatz Peon Ormazabal aldarrikatu da alkate-lehendakari, berak lortu baitu gehiengo absolutua alkategaien artean.

7.- ALKATEAREN KARGUA HARTZEA

Udal idazkariak ondoko galdera egin dio alkate izateko hautatua izan den Olatz Peon Ormazabal andreari:

Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientziagatik eta ohoreagatik, Erregeari leial izanda, zintzo beteko dituzula alkate karguaren obligazioak, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuaren oinarritzko araua delako?

Baiezkoa erantzun ondoren, Adineko Mahaiko lehendakariak, aginte makila emanaz, karguaren jabetza eman dio, hitz hauek esanez:

“Olatz Peon andrea Tolosako alkate izendatua izan dela adierazten dut. Zorionak, Olatz”

Ondoren, alkateak, Olatz Peon Ormazabalek, hitza hartu du:

“Egun on denori,

Udal ordezkariak, idazkari andrea, kontuhartzailea, herritarrak eta lagunak.

Egia esan orain lau urte ekitaldi honetan bertan sentitu nuen urduritasuna eta erantzukizuna oso gogoan ditut. Gaur, lau urte beranduago, orduko emozio berdinekin berresten dut erantzukizun hau tolosarron gehiengoaren babesa jasoz.

Azken lau urte hauek biziak izan dira, dinamikoak eta esperientzi berri asko bizi izan ditugu azken korporazioa osatu dugun zinegotziok.



TOLOSAKO
UDALA

Lehenik eta behin, aipatu nahi ditut azken legealdi honetan lanean aritu diren korporazioko 17 zinegotziak eta aitortu herriaren mesedetan egindako lan guztia eta, era berean, ongi etorria eman nahi diot korporazio berriari, gaur Tolosako herriarekin hartu duen konpromisoagatik.

Tolosa nire herria da, hemen jaio, hazi eta bizitu izan du naiz beti. Gure herri hau, herri bizia da, anitza, tradizioak mantentzen dituena, baina aurrera begira bizi dena.

Politikagintzak herriaren zerbitzura egon behar duela kontsideratu dut beti eta udal ordezkariak, udal langileekin batera, herriari zerbitzu hobea eskaintzeko lan egingo dugu egunero, herritarra izanik gure lanaren erdigunea, interes orokorra lehenetsiz, baina norbanakoaren egoerak ahaztu gabe.

Aitortu nahi dut gure egunerokoan balio demokratikoak oso presente izango ditugula eta udal honek bere ordezkarien bidez bere herritarrak errespetuz hartuko dituela.

Momentu honetan lizentzi bat hartuko dut. Izan ere, gogora ekarri nahi dut, orain lau urte bilkura honetan egon zelako gurekin Antton Marquet Artola: Anttonek erakutsi zidan udal aurrekontuaren logika, eta erakutsi zidan bere logika nagusia zela herriaren beharrak asetzeko zenbakiak isladatu behar zituela, bestela zentzua galtzen zuela, nahiz eta sarrerak eta gastuak oso txukun aurkeztu.

Pentsatzen nuen gaur ere etorriko zela ni agurtzera eta bizitzaren paradoxak, nik agurtu nuen bera aurreko asteko asteartean Tolosako hilerrian.

Eta bigarren pertsona aipatu nahiko nukeena aita da. Orain lau urte ere hemen izan zen eta gaur bere hanka zaharrek ez diote honaino etortzen utzi.

Herriarena den etxe honetan, herriko etxea, euskal erakundeei aitortzen didan errespetu guztiarekin, gardentasunez eta hain bizi aldatzen ari den gure gizartearen erronka berriei eutsiz, lanean jardungo dugu astelehenetik aurrera.

Tolosako Udaletxeko ateak irekita daude nahi duenarentzat, ni herritarraren eskura egongo naiz, nire obligazioa da eta nire prestutasuna azaldu nahi dizuet horretarako. Batzuetan, nahi baino gehiagotan, ezin izango dugu "berehalakoan" eta "eraginkortasun osoz" herritarrak zilegitasunez eskatutakoa burutu, baina nire lehentasunetan egongo da datorren legealdi honetan gure Udalarri eraginkortasun gehiago ematea, herritarren mesedetan.

Hemen mahaiaren inguruan dauden alderdien ordezkariak, herritarren ordezkariak, hitz batzuk nahiko nizkieke esan.

Alderdi sozialistaren ordezkariak eskerrak eman nahi dizkiot boto gehien jaso dituen alderdiari babesa emateagatik eta gobernua sendotzeagatik.

Oposizioan dagoen alderdiari, EHBILDUri, eskatzen diot "kritikoa" izan dadila herritarri zerbitzu hobea eskaintzeko eta bultzatzea beste gainontzeko zinegotziekin batera, bat egiten dugun proiektuetan, aurrera ateratzeko, denok interes berdina baitugu mahai honen inguruan.



TOLOSAKO
UDALA

Alderdiko nire lagunak, EAJko taldea, talde lanean garelako indartsu. Protagonismoa zerrenda buruak hartzen badu ere, atzean lan talde ikaragarri bat dagoelako lanean.

Azkenik, ez ditut ahaztu nahi Udalaren zerbitzura dauden langileak, goi mailan dauden eta hemen presente daudenak kontutan hartuz eta beste guztiak gogora ekarriz. Guzti horiek gabe ezina da udalgintza burutzea, langile guztiak: esku-langileak, bulegariak, teknikariak, eta beste asko eta asko. Arreta berezia jarriko dugu, legealdi honetan eta esparru honetan, antolaketa eta baldintzak berrikusteko. Baina adierazi nahi dut ezinbestekoa dugula langile guzti horien egitekoa eta aitortu nahi dut nire esker ona guzti horiekiko.

Uste dut elkarlanerako aukera berri bat irekitzen dela gaurko ekitaldi honetan, errespetua izanik oinarri, herriaren nahiari erantzuteko, egin dezagun denok batera bide hau helburu hori lortzeko.

Mila esker."

Besterik gabe, eguerdiko hamabi eta erdietan, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEAK
O.E.

IDAZKARIAK